

# BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

## Europako Batzordearen diru-laguntzak

Europako Parlamentuak, Europako Batasunean diren hizkuntza eta kultur aniztasuna kontutan hartuta, 1982az geroztik gutxiengoan edo eskualde mailako hizkuntzak babestu eta sustatzeko erabakiak hartu ditu. Horretarako, Europako Batzordearen XXII. Zuzendaritza Orokorrak (Hezkuntza, Prestakuntza eta Gaztedia) diru-laguntza batzuk ematen ditu, bereziki, honako helburuetarako: irakaskuntza, kultura nahiz informazio alorretan ekimenak sustatzeko; horri buruzko informazio nahiz esperientzi trukeak hobetzeko; eta haur hezkuntza eta helduen heziketa bitartean hizkuntza

### Lehentasuna duten proiektuak

- Pedagogi proiektuak irakaskuntza maila desberdinetan.
- Hizkuntzaren corpus-aren normalizazioa xede dutenak.
- Ikasmaterialgintza.
- Hitzaldiak, jardunaldiak eta mintegiak.
- Argitalpenak.
- Hizkuntzak komunikabideetan erabiltzea helburu dutenak.
- Dokumentazioa eta informazioa.
- EBko herrialde desberdinetan dauden hizkuntza bereko biztanleen arteko kultur topaketak.

horien irakaskuntza antolatu, hobetu edo sustatzeko.

Diru baliabideak mugatuak direla eta, proiektuetan ondoko lehentasunak ezarri dira: pedagogi proiektuak irakaskuntza maila desberdinetan; hizkuntzaren corpus-aren normalizazioa; ikasmaterialgintza; hitzaldiak, jardunaldiak eta mintegiak; argitalpenak; komunikabideetako hizkuntza erabiltzea; dokumentazio eta informazioa; Europako Batasuneko herrialde desberdinetan dauden hizkuntza bereko biztanleen arteko kultur topaketak.

Europako Batzordeak lanak hautatzerakoan ondoko irizpideak hartuko ditu kontutan: Europarako baliozkoa izatea; gutxienez bi estatu edo hizkuntza komunitateren artean egitea; lanaren eraginari eta ondorio biderkatzaileari begiratzea; proiektuaren urgentzia; eskaera. txukun eta kalitatezkoa izatea; proiektuaren kostu-eraginkortasun erlazioa.

Proiektuak hiru epetan aurkez daitezke: 1995eko martxoak 15, uztailak 15 eta irailak 15.

- Argibide gehiago (inprimakiak, dokumentazio bideratzea...) jaso nahi izanez gero, jo ezazue Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusira.

Tfnoa.: (945) 18 80 90.



Steven Spielberg-ek zuzenduriko Hook.

### ETBk euskara erraza bultzatuko du filmeetan

Euskal Telebistaren lehen kateak esperimendu berriari ekin dio otsailaren hasieran euskaraz itzulitako filmeetik ikusle gehiago irabaz dezaten. Horretarako entzute handiko hamar filme aukeratu ditu.

ETBko arduradunen ustez, orain artean beste hizkuntzetatik bikoiztutako filmeetik audientzia eskasa lortu badute, erabili den euskaratik izan da nagusiki. Goenkale eta beste saio arrakastatsu zenbaitek darabilten euskara bizi eta errazaren ondoan, jatorrizko gidioletatik itzulitakoa zurrunezia litzateke eta zail samarra.

Hori konpontzeko, beraz, ETBk hiru zutabetan oinarritu du eronka berria: eskaintzaren kalitatean, ospe handiko filmeak aukeratuz, gidioiak hitzez hitz itzuli beharrean euskaraz sortu balira bezala egokituz eta bikoizketa bereziki zainduz. Gaurero askatasun handiagoa eta errejistroen aberastasuna bilatuko dira jatorrizko testuak itzultzerakoan.

# Patxi Goenaga, euskaltzain oso berria

Patxi Goenaga, 46, Gasteizen bizi den hizkuntzalari azpeitiarra da Euskaltzaindiak hautatu duen azken euskaltzain osoa.

Loiola auzoko baserri batean jaioa, mutikotan Xabierren ikasi zuen, jesuiten ikastetxean. 1974an Filologia Erromanikoan lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean. Hantxe irakatsi zuen urte batzuetan harik eta Koldo Mitxelena Euskal Herriko Unibertsitatean deitu zuen arte. 1984an Euskal Filologian doktore bilakatu zen EHU. Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko irakasle katedraduna eta dekanu izan ostean, EHUko Arabako campuseko errektoreordea da gaur.

Ondo ezagutzen du Euskaltzaindia, zeren eta euskaltzain oso izendatu aurretik euskaltzain argazle izan



Patxi Goenaga

baita hamasei urtez. Gramatika eta LEF (Lexikologi Erizpideen Finkapena) batzordeetan egin du lan batez ere.

1978an Gramatika Bideetan liburua argitaratu zuen. Bi euskal gramatika idatzi nahi ditu. Euskaraz bata eta gaztelaniaz bestea, lagun askok horixe eskatu baitio. Ikerkuntzari dagokionez, bestalde, zenbait esaldi motaren -infinibozko egitura kasu- azterketari ekin nahiko lioke.

Euskaldunagoa izatea gustatuko balitzaio ere, oso

gustora bizi da Gasteizen emaztea eta bi seme-alabekin. Gaitzetsi egin du Araban euskararekin egiten ari den erabilera politikoa eta Arabako beste jende ezagunarekin batera manifestu bat sinatu du elebitasunaren eta hizkuntza tolerantziaren alde.

## Richard Bourhis-en mintegiak

Richard Y. Bourhis hizkuntzalari kanadiarra eta aurreko Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle bisitaria denak lau hitzaldi emango ditu EHUko Gizarte-Psikologia eta Portaera-Zientzien Metodologia Sailean.

- Martxoaren 9an *Etnolinguistikazko bizitasuna eta garapen elebiduna*, aztertuko du.
- Martxoaren 16an *Hizkuntzen paisajea eta etnolinguistikazko bizitasuna*.
- Martxoaren 23an *Elebitasuna eta laneko hizkuntza*.
- Martxoaren 30ean *Kulturatzeko elkarreragile baten eredurantz*.

Hitzaldi guztiak ostegunetan izango dira, Donostiako Ibaetan dagoen Psikologia Fakultateko 1.4 gelan, eguerdiko 12:30etan.

Ingelesez izango dira, aldi bereko itzulpenik gabe. Galderak frantsesez edo ingelesez egin ahal izango zaizkio hizlariari.

**Ingeniaritza Eskolan ere euskaraz.** Gaur egun hiru dira Donostiako Ingeniaritza Eskolan euskaraz irakasten diren gaiak. Donostiako Ingeniaritza Eskola Nafarroako Unibertsitatearena da eta Plan Berriaren bigarren lau hilekoan Euskara gaia sartzeko asmotan dira, ikasle euskaldunek nomenklatura tekniko euskaraz nola sortzen den ikas dezaten.

**Aizu! aldizkaria hamabostero.** AEK-k euskara ikasten ari direnentzat argitaratzen duen Aizu! aldizkariak maiztasuna (hamaboskari bilakatu da), formatoa, diseinua eta edukia aldatu ditu, irakurleekin lotura estuagoa izan nahian. Lehen baino 75 pta merkeagoa izango da, gainera. Harpidetza eginez (urtekoa 6.300 pta) edo kiosko zein liburutegietan lor daiteke eta AEKren euskaltegietan.

**Poloniarrek euskara ikasten.** Zornotzako barnetegiak Poznan-go Unibertsitateko bederatzik ikasle poloniar hartu ditu urtarrilean zehar mintzamen lantzeko. Euskara maila polita ekarri dute, izan ere Polonian Eguzkiñe Arbulu baitute irakasle. Haietako bat EGA agiriarekin itzuli da. Egonaldi hau Bizkaiko Foru Aldundiak eta Poznango Gobernuak duten hitzarmenari esker egin ahal izan da.

**Europako hizkuntza planifikazioa aztergai.** Kataluniako Soziolinguistika Institutuak eta Soziolinguistikako Talde Katalanak antolatuta, azaroaren 9an eta 10ean Hizkuntza Planifikazioari buruzko Europako Kongresua egingo da Bartzelonan. Aldi bereko itzulpena katalanera eta ingelesez egingo da. Matrikula 15.000 eta 20.000 pta artean izango da. Berri gehiagorako ftnoa.: (93) 482 56 72.

# Landazuri elkartearen hitzaldi sorta Araban

Gasteizen, hiru egunetan zehar otsailaren erdialdean, Arabako hizkuntza bien inguruan egindako jardunaldiak arrakastatsuak izan ziren. *Arabako hizkuntza biak eta gaur egungo gizartean duten tokia* izenarekin, euskararen historia, Arabako alderdi politikoek gai horretaz duten ikuspegia eta euskara administrazioan eta komunikabideetan aztertu ziren. Jendeak polito erantzun zuen eta galdera asko zuzendu zizkien alderdietako ordezkariak, hausnarketarako eta eztabaidarako giro onean.

Jardunaldi hauek Gasteizko Landazuri elkarteak antolatu ditu, hau da, Arabako pentsakera liberala indartu nahi duten ikuspegi desberdineko zenbait lagunek XVIII. mendeko historialari gasteiztar ilustratuaren omenez 1991n eratu zuten elkarteak. Bederatzi lagunek osatzen dute Zuzendaritza batzordea eta

Arabako paisajea, natura eta kultur ondarea gordetzea du helburu. Horregatik eratu zituen aipatutako jardunaldiok. Horrez gain, ekintza asko antolatu zituzten: txangoak, Arabak duen ondarea ezagutarazteko; salaketak, gehiegikeria urbanistikoak gaitzetsiz; eztabaidak, etab. Politikak dena inbaditu duela uste dute Landazuri elkarteak kideek eta gizarte zibila dagoen lozorrotik atera beharra dagoela, elkarrizketa eta tolerantzia bultzatuz.

Elkarteak bere helburuak ezagutarazteko *Landazuri, papeles de opinión*, 28 orrialdeko aldizkaria argitaratzen du. Aldizkarian era guztietako gaiak dira aipagai eta aztergai. Dagoeneko hiru zenbaki kaleratu dira, publizitatearen bitartez finantzatzen direnak. Laugarrena irarkolan dago, laster ateratzekotan.

**Adolfo Arejita**, 41, Bilbon bizi den morgatarrak aho batezko cum laude goraipamena jaso zuen otsailean Deustuko Unibertsitatean aurkeztu zuen *Juan Antonio Mogelen obra* doktorego tesiagatik. Hizkuntza irakasten du Deustuko Unibertsitatean. Labayru Ikastegiko Euskara Saileko zuzendaria da.

**Victor Hidalgo**, irakasle donostiarra aho batezko cum laude goraipamena jaso du otsailean EHUKo Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean euskaraz aurkeztu duen *Hitz ordena euskaraz* izeneko doktorego tesiagatik. Victor Hidalgo Donostiako Hizkuntza Eskolako irakaslea da.

**Luixa Reizabal**, 30, ikerlari donostiarra aho batezko cum laude goraipamena irabazi zuen urtarrilean EHUKo Psikologia Fakultatean euskaraz aurkeztu zuen *Bakearen dimentsio kulturala Euskal Herriko uste sistema eta perzeptzioetan* doktorego tesiagatik.

## Argitalpenak

### Atxagaren liburu sorta herria

Erein argitaletxeak estreinatu berri du *Holaxe bizi da Xola* bilduma. *Xola*, Bernardo Atxagaren azken pertsonaia literarioa, arratoi-txakurra da. Mikel Valverderen marrazki dotoreekin osatua dago oso txikun argitaratutako ale hau.



EUSKARAREN BERRIPAPERARA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako  
Idazkaritza Nagusia  
Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz     Gazteleraz

Izen-deiturak: .....  
.....  
Helbidea: .....  
.....  
Herria: .....  
Kodea: .....  
Lurraldea: .....  
Tel.: .....

## Galdezka

### Erronkak eta helburuak

**G** Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia aldatu ondoren, zeintzuk dira HPINen erronkak eta helburuak?

**E** Bi erronka nagusi ikusten ditut. Batetik hizkuntza normalkuntzan jarritako baliabideei ahalik eta etekin onena ateratzea.

Bestetik, hizkuntza normalkuntzan beharrezko den gizarte giro egokia sortzea eta esparru honetan dauden gai, korapilotsuei irtenbide adostuak bilatzea.

Hiritarrak hizkuntza normalkuntzaren garrantziaz sentiberatu nahi ditugu, administrazioaren eta gizartearen arteko elkarrizketa sendotu eta euskararen ezagutza eta erabilera sustatu.

Aurrera egingo dugu euskararen aberastasuna, batasuna eta eguneratzea lortzeko corpus-eko lanei ekinez, familiaren eta eskolaren bidez, belaunez belauneko euskararen jarraipena bermatzeko eta euskal hiritarrek administrazio publikoekin harremanak euskaraz izan ditzaten.

**Jose M. Zeberio**  
Hizkuntza Politikarako  
idazkari nagusia.

### Xibot, haur heziketarako material katalogoa

Zure haurarentzat egokiak diren opari, joko edo apalategiak non aurkitu ez dakizula? Begira ezazu Xibot katalogo ikusgarrian.

Haur heziketarako materiala saltzen duen Xibot etxeak kalitate handiko katalogoa argitaratu du, erabat euskaraz.. Ia berrehun orrialdetan barrena milaka jostailu, joko, tresna eta altzari aurkezten ditu. Testu argiekin dator, informazio pedagogikoa eta ekonomikoa ondo uztartzen dituztenak. Argazkiak, bestalde, oso lagungarriak dira produktuak hobeto ezagutzeko.

Xibot Euskal Herriko zenbait liburu saltzailek eta banatzailek sortutako enpresa da, liburuez gain haur heziketan erabiltzen diren beste material

pedagogikoak eskaintzeko asmoarekin. Abacus Kataluniako kontsumitzaile kooperatibarekin elkarlanean, Europan ezagunak diren Nathan materialak eta beste asko eskaintzen dituzte. Euskal Herriko eskola guztiek katalogo bana jasotzen dute dohainik, baita eskatzen duen orok ere. Tfnoa.: (943) 33 14 59.



### ✓ Kontutan hartzeko

- Karlos Santamaria Ikerketa-saria. Donostiako Euskararen Udal Patronatuak eratu du. Gaiak giza zientzia, zientzia edota teknologia izango dira. Sari nagusia milioi bat pezetakoa izango da. Lanak aurkezteko epea irailaren 22an amaituko da. Tfnoa.: (943) 42 47 17.
- Expolingua Madrilen. Chamartin tren geltokian

izango da, martxoaren 30etik apirilaren 2ra. Eusko Jaurlaritzako HPINek eta Nafarroako Gobernuak HPZNe elkarrekin parte hartuko dute.

- Korrika 95. AEK-k antolatuta, Korrikaren IX. edizioa Jalgi Hadi Euskara leloaz, martxoaren 17an abiatuko da Donibane Garazin (Nafarroa Beherean) eta 26an bukatuko da Gasteizen.

**EUSKO JAURLARITZA**  **GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA